

## HIZKUNTZA MUSIKALA

Musika irakurtzen irakasten digun arloa da.

Musika irakurtzea funtsezkoa da, instrumentu bat jotzeko asmoa daukazunean.

Ematen ditugun edukiak, 5 arlo ezberdinetan sailkatzen dira: erritmoa, melodia, inprobisazioa, ariketak eta diktaketa.

Arlo hauetan hainbat funtzio lantzen dituzte:

- Musikaren pultsua gure barnean sentitzea
- Entzumenaren heziketa
- Ahotsaren heziketa
- Musikaren irakurketa zehatza

Zubiaur Musika Eskolan, hizkuntza musikala ikasteko 3 bloke bereiz ditzakegu, adinaren arabera:

ADINA	KURTSOA	DENBORA
8 eta 9 urteko ikasleentzat	5 kurtso	Ordubete astean
10, 11 eta 12 urte ikasleentzat	3 kurtso (5 kurtsoetako edukiak ematen ditugu)	Ordubete astean
13 urtetik gora	Derrigorrezko kurtso bat (Hautazko bi urte)	Ordubete astean